

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

4909

AGINDUA, 2017ko irailaren 19koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, Karrera Judizialera, Fiskalera eta Justizia Administrazioako Letraduen Kidegora iristeko prestaketa-laguntzetarako 2018ko deialdia egiteko eta laguntza horiek arautzeko dena.

Giza baliabideen garrantzia abiaburu hartuta, eta jakinda zenbateraino den beharrezko Karrera Judizialera, Fiskalera eta Justizia Administrazioako Letraduen Kidegora (lehen idazkari judizial izendapena jasotzen zuten) sartzeko bidea ematea eta erraztea, egonkortasuna bultzatzeko eta Justiziaren zerbitzu publikoaren kalitatea ona izateko, eta, hartara, herritarrak gustura egoteko eta konfiantza handiagoa izateko Justizia Administrazioarekin, duela hamar urte baino gehiago abiarazitako gurpilaren biran jarraitzea erabaki dugu, eta agindu honen bidez hainbat laguntza ematea, Zuzenbideko lizentziadunak motiba daitezzen beren urratsak Karrera Judizialera eta Fiskalera eta Justizia Administrazioako Letraduen Kidegora bideratzera. Hartara, Justizia Administrazioak langile egonkorak izango ditu, eta lana zorrotzago eta kalitate hobez egiteko moduan egongo da.

Aurreko deialdiei dagokienez, eta laguntza hauek ematearekin bilatzen diren xedeen betetze-maila hobetzeko xedez, bai eta deialdiari gardentasun handiagoa emate aldera ere, aldaketa batzuk egin dira, bai betekizunetan, bai aurkeztu behar den dokumentazioan, bai merezimenduak baloratzeko irizpideetan. Horien artean, hauek nabarmentzen dira: eskatzailearen gaineko pertsonen diru-sarreretan gehieneko muga ezarri da, eta espediente akademikoaren balorazioa aldatu da, espediente horren batez besteko nota orokorrarekin bat eginez.

Lan eta Justizia Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren barruan kokatzen da deialdi hau, eta gastu-espedientearen aurretiko izapide-araubidearen mende dago, Ogasun eta Administrazio Publikoko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Agindua aplikatuz. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargurako gastu-espedienteen aurretiko izapidea erregulatzen da.

Era berean, administrazio publikoen diru-laguntzak emateko jarduera arautzen duten printzipioen arabera ebatziko da deialdi hau, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan ezarritako eran, eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako oinarrizko araudiarekin bat.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Karrera Judizialera, Fiskalera eta Justizia Administrazioako Letraduen Kidegora iristeko oposizioak prestatzeko 30 beken 2018ko deialdia iragartzea eta arautzea.

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

1.– Beka bakoitzak 6.600 euroko laguntza emango du, urtero. Hilero 550 euro emango dira.

2.– 2018ko ekitaldian, agindu honek jasotzen dituen laguntzetarako ehun eta laurogeita hemezortzi mila (198.000) euroko kopurua ezarriko da, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan ezarritako aurrekontu-izendapenaren kontura.

3.– Kreditu egokia eta nahikoa izan arte ez dira emango 2018ko ekitaldirako bekak.

3. artikulua.– Iraupena.

1.– Bekek urtebeteko iraupena izango dute, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte.

2.– Aurreko zenbakian ezarritako epean onuradunak dagokion hautaketa prozesua gainditzen badu, laguntzaren epea bere izendapena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean amaituko da, edo, lehenago gertatzen bada, Eskola Judizialean sartzen denean.

3.– Deialdi honen xede diren bekak ebazteko baldintza izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urterako aurrekontu orokorretan, hala xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren bidez ordainduko diren gastu-espeditentak aurrez izapidetzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan.

4. artikulua.– Baldintzak.

Eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskaera aurkezteko unean:

a) Oposaketen aurreko deialdian eskatzen ziren baldintzak betetzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea eta azken zazpi urteetatik gutxienez bostetan bertan bizi izana.

c) Zuzenbideko lizentziatura edo gradua izatea.

d) Lizentziatura edo gradua, gehienez ere, orain dela zazpi urte lortutakoa izatea.

e) Karrera Judizial edo Fiskaleko edo Justizia Administrazioiko Letraduen Kidegoko prestatzaile baten zuzendaritza izatea.

Prestatzailea beste kidego batekoa izan daiteke, baldin eta prestakuntza-prozesua gidatzeko merezimenduak dauzkala irizten bazaio. Horretarako, Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak behar bezala arrazoitutako baimena eman beharko du.

f) Hiru urteko gehienezko epean –jarraian edo aldizka– deialdi honetan aipatzen diren oposizioak prestatzeko edozein bekaren, antzeko izaeradun graduondokoren edo laguntzaren onuradun ez izana.

g) Eskatzailearen gaineko pertsonak 80.000 euro gordinetik gorako diru-sarrerarik ez edukitzea. Diru-sarreratzat hartuko dira laneko edota jarduera ekonomikoetako etekinen ondoriozkoak eta kapital higiezin zein higigarrietako etekinen ondoriozkoak. Era berean, irabazizko transmisioetatik eratorritako ondare-irabaziak ere zenbatuko dira.

Berdin zenbatuko dira langabeziagatiko, aurretiko erretiroagatiko, ezintasunagatiko eta DSBE-gatiko prestazioak, kontribuzio-prestazioak edo kontribuziorik gabeko prestazioak, gizarte-behar larrietarako diru-sarrerak, gizarteratzeko diru-sarrerak edo aurrekoen antzeko beste batzuk.

h) Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez egotea zigor- edo administrazio-bidean, eta ez izatea horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik.

Sexuagatiko diskriminazioa dela-eta zigor- edo administrazio-bidean zigortuta ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren arabera.

i) Egiaztatu behar da erakundeak ez daukala abian itzultze- edo zehapen-prozedurarik, edo horiek amaituta dituela; hortaz, diru-laguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, amaituta egon beharko dute itzultze- edo zehapen-prozedurek.

j) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea.

k) Ezin izango dira beken onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan aurreikusten den debekuren bat egiten dutenak.

5. artikulua.– Eskabideak eta formularioak aurkeztea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabetekoa izango da.

2.– Eskabideak aurrez aurre aurkez daitezke (l. eranskina) Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan (Zuzenean zerbitzuan), Eusko Jaurlaritzaren Justiziako Lurralde Kudeaketako Unitateetan, edota Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan, atal guztiak behar bezala beteta. Eskabide-eredua egoitza elektronikoa honetan eskura daiteke: euskadi.net

https://euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2017/becas-carrera-judicial/es

https://euskadi.net/diru_laguntza/-/2017/karrera-judiziala-bekak/eu

Posta-bulegoen bidez aurkezten badira, gutun-azal irekian eramango dira, postetxean onartu den eguna eta ordua jaso daitezzen eskaeraren goiburuan.

Era berean, eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango dira, lehen aipaturako euskadi.net-eko egoitza elektronikoa.

3.– Pertsona eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten bezala. Orobat, prozeduran zehar, erakundeak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartu direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

6. artikulua.– Zer dokumentu aurkeztu behar den eskabidearekin batera.

Eskabidearekin batera agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

a) NANaren fotokopia.

b) Udal ziurtagiria, jatorrizkoa edo kopia ziurtatua, eskatzailearen administrazio-auzotasuna eta bizilekua egiaztatzen dituen 4. artikuluko b) letran ezarritako epean. Ziurtagiriak, gainera, eskatzailearen bizilekuan bizi diren pertsona guztiak jaso beharko ditu.

c) Eskatzailea mantentzen dutenen egoera ekonomikoari buruzko egiaztagiriak. Horretarako, 2016. urteko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren behin-behineko edo behin betiko liki-

dazioaren fotokopia aurkeztu beharko da, edo, bestela, 2016an izandako diru-sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak, haien sarrera-maila dela-eta, aipatu aitorpena egin behar ez dutenen kasuan.

Halaber, eskatzaileak edo mantentzen dutenek langabezia-prestaziorik, aurre-erretirorik, larrialdi sozialeko diru-sarrerarik, gizarteratzeko laguntzarik edo halako sarrerarik jaso izan badu 2016. urtean, horiek egiaztatzeko agiriak (INEMekoak, Gizarte Segurantzakoak edo dagokien erakunde edo organoenak); berdin dio jasotzailea errenta-aitorpenean sartuta dagoen ala ez.

Eskatzailea mantentzen duten pertsonen banaketa, dibortzio edo antzeko egoerarik baldin bada, egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioaz gain (familia liburua, epaia, eta abar), beharrezkoa da hitzarmen arauemailea ere aurkeztea. Hitzarmen arauemaile horretan jasotako diru-sarrerak ordaindu ez badira, zuzenbidean onartutako legezko edozein bitartekoren bidez egiaztatuko da.

Eskatzailea bere gurasoak ez diren pertsonen mantentzen badute ekonomikoki, elkarbizitzako gutxieneko denboraldi bat egiaztatu beharko du zuzenbidean onartutako legezko edozein bitartekoren bidez. Denboraldi hori gutxienez 2016ko urtarrilaren 1etik eskaerak aurkezteko epea ireki bitartekoa izango da.

d) Espediente akademiko osoa, jatorrizkoa edo kopia ziurtatua.

Aurreko deialdietan ikasketa-espeditentea aurkeztu duten eskatzaileek ez dute berriro aurkeztu beharrik izango.

Espediente horretan, batez besteko nota orokorra jaso beharko da berariaz (0tik 10erako zenbaki-eskalan).

e) Euskara-maila egiaztatzen duen dokumentazioaren originala edo kopia ziurtatua. Aurreko deialdietan dokumentazio hori aurkeztu duten edo Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dauden eskatzaileek ez dute aurkeztu beharrik izango.

f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean daudela egiaztatzen duten jatorrizko ziurtagiriak, eskudun organoek igorritakoak.

g) Onuradun gertatzen direnei laguntza abonatzeko, Hirugarrenen Datuen Alta agiria (bankuko datuak) aurkeztu beharko da, eredu normalizatuarekin erabiliz. Laguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu ahalko da.

Artikulu honen a), e) eta f) letretan eskatzen den dokumentazioa egiaztatzeko, agindu honen 8. artikulua 1. zenbakian jasotzen diren aurreikuspenak erabili ahalko dira.

Eskabidearekin batera aurkeztu ahalko da gainerako dokumentazioa, xede horretarako aurreikusitako den agiri normalizatua erabiliz.

7. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Nahi dutenek baliabide elektronikoen bidez egin ahal izango dituzte eskaera, kontsultak eta prozedurako izapide guztiak.

2.– Eskabideak, erantzukizun-adierazpenak eta gainerako ereduak modu presentzian zein elektronikoki nola izapidetu jakiteko xehetasunak egoitza elektronikoki honetan eskura daituzke: https://euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2017/becas-carrera-judicial/es; <https://euskadi.net/dirulaguntza/-/2017/karrera-judiziala-bekak/eu>

3.– Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurrekoa edo elektronikoa erabiltzeak, ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako

gainerako izapideak egiteko bide bera erabiltzera, eta edozein momentutan alda daiteke aukeraturako bidea.

4.– Eskabidearen ondoko izapideak, bide elektronikoa erabiliz egitekoak, helbide honen bidez egingo dira:<http://www.euskadi.net/misgestiones>; <https://euskadi.net/nirekudeaketak>

8. artikulua.– Eskatzailearen betekizun jakin batzuk egiaztatzea eta erantzukizun-adierazpenak.

1.– Eskabideek aukera emango dute eskatzaileak espresuki baimena eman dezan jarraian adierazten diren datuak edo dokumentuak organo kudeatzaileak eskuratzeko edo egiaztatzeko:

– Nortasunari buruzko datuak (NANa).

– Euskararen ezagutza-mailaren egiaztagiria, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bate-ratuan kontsultatuta.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Eskatzaileak berariaz egingo balio uko ofiziozko jarduera horretarako baimena emateari, informazio hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko luke.

2.– Gainera, eskabidean sartuko den erantzukizun-adierazpen baten bidez, inguruabar hauek egiaztatuko dira:

– Ez duela xede eta helburu bererako laguntza edo diru-laguntzarik jaso, administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.

– Ez duela zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.

– Ez daukala diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko desgaitzen duen legezko debekurik, berariaz aipatuz sexuagatiko diskriminazioarengatik sortu direnak, 4/2005 Legearen seigarren xedapenean ezartzen dena betez (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa).

– Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkala.

– Egiaztatu behar da eskatzaileak ez daukala abian itzultze- edo zehapen-prozedurarik, edo horiek amaituta dituela; hortaz, diru-laguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, amaituta egon beharko dute itzultze- edo zehapen-prozedurek.

– Laguntza horien onuraduna izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

– Egiazkoak direla eskabidean eta erantsitako agirietan jasotako datuak.

– Ez duela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 artikuluan ezarritako debekurik.

Era berean, erantzukizun-adierazpenaren bidez, eskaeran sartuta dauden honako baldintza hauek egiaztatuko dira:

– Eskatzaileak betetzen dituela prestatu nahi duen oposizioaren azken deialdian eskatutako betekizunak, ez duela jasotzen beste beka-motarik, antzeko izaeradun graduondoko ikasketarik,

eta ez duela ordaindutako lanik egiten. Nolanahi ere, salbuespen izango da deialdi-aginduaren 14.1 artikuluan aurreikusitakoa.

– Eskatzaileak Karrera Judizial edo Fiskaleko edo Justizia Administrazioiko Letraduen Kidegoko prestatzaile baten zuzendaritza duela.

Laguntzen onuradun izateko proposatu diren pertsonak, laguntzaren ebazpena eman aurretik, aipatutako betekizunak egiaztatuko dituzte, dagokion ziurtagiria aurkeztuz edo organo kudeatzaileak zuzenean egiaztapena egiteko baimena emanaz.

9. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak eskatzaileek aurkeztutako agirietan zerbait falta dela ikusten badu, 10 eguneko epea emango du akatsak zuzentzeko. Epea amaitzerakoan zuzenketa egin gabe badago, uko egin duela ulertuko da, horretarako ebazpena eman ondoren.

10. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzeko organoa.

Justizia Administrazioiko zuzendaria da deialdiaren organo kudeatzailea.

11. artikulua.– Merezimenduak balioestea.

1.– Onuradun izan ahal izateko, honako merezimendu hauek hartuko ditu kontuan hautaketa-batzordeak:

a) Egoera ekonomikoa, 0tik 45 puntura bitarteko eskalan baloratuko da, honako banakapenaren arabera:

a) Sarrerak eurotan

Sarrerak eurotan	Puntuak
< 15.000	25
27.000	20
40.000	15
53.000	10
66.000	5
> 66.001	0

b) Sarrerak eurotan, familia-unitateko kide bakoitzeko, honako kopuru hauetara bitarte:

Sarrerak eurotan	Puntuak
< 3.000	20
7.000	16
10.000	12
13.000	8
16.000	4
> 16.001	0

Etekin garbien arabera zenbatuko dira PFEZren aitortenaren bidez egiaztatzen diren diru-sarrerak, bai laneko eta jarduera ekonomikoko etekinen ondoriozkoak, bai kapital higiezin zein higigarrietako etekinen ondoriozkoak. Era berean, irabazizko transmisioetatik eratorritako ondare-irabaziak ere zenbatuko dira.

Zuzenbidean legez onartzen diren eta PFEZren aitortenak ez diren bitartekoen bidez egiaztatzen diren gainerako diru-sarreretan, diru-sarrera osoak zenbatuko dira.

b) Espediente akademikoa espediente horren batez besteko nota orokorraren arabera baloratuko da, 0tik 35era arteko puntuatzean, banakapen honen arabera:

– 9tik Ohorezko Matrikulara: 35 puntu.

– 8tik 8,99ra: 30 puntu.

– 7tik 7,99ra: 25 puntu.

– 6tik 6,99ra: 15 puntu.

c) Euskara jakitea: 0 eta 15 punturen artean, B1: 5 puntu, B2: 10 puntu, eta C1: 15 puntu.

d) Aurreko urteetan onuraduna izatea: 0tik 5 puntura bitartean. Urtebetez: 2 puntu; bi urtez: 3 puntu, eta horien zenbaketa pilatu ahalko da.

2.– Bi eskatzailek edo gehiagok puntu kopuru bera eskuratuz gero, ikasketa-espedientearen batez besteko osoaren arabera ebatsiko da berdinketa.

3.– Baldin eskatzailearen batek ez badu lortzen gutxienez 6ko batez besteko nota ikasketen espedientearen, besterik gabe lehiaketatik kanpo geratuko da, beste inongo merezimendurik baloratzen hasi gabe.

12. artikulua.– Laguntzen onuradunak aukeratzea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, hautaketa-batzordeak erabakiko du zein hautagai proposatu beka eskuratzeko. Honako hauek, edo beraiek izendatutako ordezkoez, osatuko dute batzordea:

Presidentea:

– Justizia Administrazioako zuzendaria.

Kontseilukideak:

– Karrera Judizialeko kide bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidente jaunak izendatutakoa.

– Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia.

– Lan eta Justizia Saileko Justiziako zuzendaria.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko gobernu-salako idazkaria.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Fakultateetako dekanok.

Justizia Administrazioako Zuzendaritzako teknikari bat izango da idazkaria; haren titularrak izendatuko du.

2.– Aurrez ezarritako baremoen arabera aukeratuko dira hautagaiak, hautaketa-batzordeak onartutako garapenaren arabera; horrela baloratuko dira eskatzaileek egiaztatutako merezimenduak. Akordioak hartzeko, batzordeko kideen gehiengo absolutuak ados egon behar du. Berdinketarik sortzen bada, presidenteak izango du boto erabakigarria.

3.– Batzordeak 30 hautagai aukeratu behar ditu lortu dituzten puntuen arabera, eta zein kidego-tarako lehiatzen diren kontuan hartu gabe. Horiez gain, beste 10 eskatzaile ere aukeratu behar ditu, hurrengo 10 puntuazio onenak lortu dituztenak, aurreneko hogeitak horietako inork beken onuradun izateari utziko balio ere, beka bukatu delako, uko egin diolako, ez duelako ondo bete betebeharrekoa, ezintasunen bat sortu zaiolako edo onuradun izateko aukera galarazten duen beste edozein gorabehera izan duelako. Nolanahi, gorabehera hori laguntza eskuratu eta hurrengo bi hilan barruan gertatu bada egingo da ordezkapena, ez bestela.

4.– Ordezko izango diren 10 hautagai horien zerrenda merezimendu lehenetsien arabera lortu duten puntuazioaren hurrenkeran osatuko da.

5.– Deialdi honen bidez emango diren beketan bakanterik sortuko balitz, lehenengo ordezkoak eskuratuko du hutsik geratutako beka, 3. artikuluan ezarritako epea osatzeko falta den aldian.

Edonola ere, ekitaldiko aurrekontutik erabilgarri dagoenaren arabera izango du laguntza ordezkoak.

13. artikulua.– Bekak esleitzea.

1.– Hautaketa-batzordearen proposamena aztertu ondoren, Justizia Sailburuordetzak ebatziko du deialdiko bekak nori eman: nor hautatu duten, zer ordezko izango diren, eta, bakanterik balego, zer bakante diren. Sei hilabeteko epea izango du, gehienez, erabakia hartu eta jakinarazteko, agindu hau indarrean sartzen denetik hasita.

Batzordeak epe horretan ez badu erabakirik adierazten, ezetsizat joko dira eskabide guztiak. Ebazpen horren aurka, administrazio-bidea agortzen ez duenez, gora jotzeko errekurtoa jarri ahalko zaio, hilabeteko epean, Lan eta Justizia Saileko sailburuari.

2.– Prozedurari buruzko ebazpena propio hautatu bakoitzari jakinarazteaz gain, aukeratutako hautagaien zerrenda, ordezkoen zerrenda eta, batere baldin badago, bakanteen zerrenda, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Justiziako sailburuordearen ebazpen bidez, bai eta emandako beka bakoitzaren zenbatekoa ere.

14. artikulua.– Beken baldintzak.

1.– Ezin da beka hau baliatu aldi berean beste bekaren bat edukiz gero, ez eta ordaindutako edozein zerbitzutan jardunez gero, non eta ez den Organo Judizialean eta Fiskaltzan ordezko-zerbitzuren bat, hala bada, zerbitzua ematen duen bitartean bekaren dirua jasotzeko eskubidea etenda geratzeko eskatu beharko du onuradunak. Nolanahi, ezingo du sei hilabete baino gehiago egin zerbitzua ematen, bekak dirauen aldian.

2.– Beka etenda geratuko da, berdin-berdin, istripuagatik edo gaixotasun larriren batengatik onuraduna ezinduta geratzen bada; jakina, behar bezala egiaztatu beharko du ezintasun hori. Kasu honetan ere, goiko kasuan bezalaxe, sei hilabetez etengo da, gehienez, bekaren diru-iturria.

3.– Epe hori pasatutakoan, oraindik ere beka etetea eragin zuten gorabeherak hor jarraitzen badute, bukatutzat emango da beka.

15. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Beka onartzeaz bat, deialdi honetan jarritako arau guztien men geratzen da onuraduna; hori dela-eta, zehazki, 14. artikuluan azaldutako edozein gorabehera gertatuz gero, horren berri eman beharko du.

Laguntza onartu egin dela ulertuko da, emakida-ebazpenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera 15 egun pasa ondoren, onuradunak besterik adierazi ez badu.

2.– Karrera Judizialeko edo Fiskaleko kideek edo Justizia Administrazioako Letraduen Kidegokoek emandako prestaketa-ikastaroetara zintzo eta ikasteko gogoz joatea, non eta ez daukan Justizia Administrazioako Zuzendaritzaren baimena ez joateko.

3.– Honako deialdi honen ondoren egingo den lehen hautaketa-prozesuan parte hartzea, betiere, bien artean gutxienez urtebeteko tarte baldin badago; eta destinoa aukeratzekoan, beti lehentasuna ematea Euskal Autonomia Erkidegoko destinoei.

4.– Hiru hilean behin, oposaketa prestatzen egindako gastuen memoria aurkeztea; prestatzaileak epe horretan sortutako fakturak (jatorrizkoak nahiz kopia ziurtatuak) erantsi behar zaizkio memoriari.

5.– Diru-laguntza jasotzen duen bitartean gertatutako edozein gorabeheren berri ematea administrazioari.

6.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen xedea fiskalizatzeko eskatutako informazio guztia ematea.

7.– Hautaketa-prozesua gainditu ondoren destinoa Euskal Autonomia Erkidegoan lortuz gero, gutxienez bi urtez jardutea lanean autonomia-erkidegoan bertan, halabeharrak eraginda beste nonbait jardun beharra egokitzen ez bazaio behintzat.

8.– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura jasotzen diren laguntzen inguruan indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezartzen diren gainerako betebeharrak guztiak, eta, zehazki, 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. eta 46. artikuluetan adierazten dena (1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasuna Antolatzeko Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, laguntza eta diru-laguntza publikoen onuradunek dituzten betebeharrei buruzkoa, onartzen duena).

16. artikulua.– Onuradunen hiruhileko justifikazioko memoria aurkezteko lekua eta modua.

1.– Agindu honen 15.4 artikuluan aurreikusitako justifikazioko memoria aurrez aurre aurkez daiteke Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan, Justiziako Lurralde Kudeaketako Unitateetan, edota Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16 artikuluan aurreikusitako organoetan, atal guztiak behar bezala beteta. Eredua euskadi.net egoitza elektronikoa argitaratuko da.

2.– Halaber, justifikazioak bitarteko elektronikoen bitartez aurkeztu ahal izango dira helbide honetan: <https://euskadi.net/misgestioness>; <https://euskadi.net/nirekudeaketak>

17. artikulua.– Pertsona onuradunen jarraipena.

1.– Justizia Administrazioako zuzendariak egingo die jarraipena laguntzen onuradunei. Horretarako, hiru hilez behingo txostena eskatu die onuradunen prestatzaileei.

2.– Prestatzaileek, aldizka eskatzen zaien txostena egiteaz gain, eskatzaileen aprobetxamenduan gertatzen den edozein gorabeheraren berri eman beharko diote Justizia Administrazioari.

18. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Hauek izango dira ez-betetzeak:

Jaso den laguntza agindu honetan aurreikusten ez diren jardueretarako erabiltzea osorik edo zati batean.

Agindu honetan ezartzen diren betebeharrak ez betetzea, edo, bestela, emakida-ebazpenean ezartzen diren betebeharrak ez betetzea.

Hala badagokio, diru-laguntza likidatzeko ebazpenean ezartzen den zenbatekoa horretarako zehaztu den epean ez itzultzea.

Diru-laguntzen arloan bete beharreko bestelako edozein baldintza, eta, zehazki, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako gainerako baldintzak bete beharko dira.

2.– Ez-betetze horietako edozein gertatu dela egiaztatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Orokorrari itzuli beharko zaizkio jasotako kopuruak, eta itzulketa egokia dela hitzartzen denetik ordainketa egin artean sortzen diren berandutze-interesak eskatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko araubide orokorra erregulatzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuari jarraikiz eta horietan zehaztutako baldintzen arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen bidez iragarritako deialdia eta berau garatzeko jarduketak honako xedapen hauen mende egongo dira: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean oinarritzko araudi gisa ezarritakoaren mende eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren mende. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren VI. tituluak ezarritakoa aplikatuko zaie.

Modu osagarrian ezarri ahalko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean (urriaren 1ekoan) xedatutakoa.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek bukaera ematen dio administrazio-bideari. Aurka egiteko, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jar diezaiokete Justizia eta Lan eta Justiziako sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

2017ko urriaren 13a, ostirala

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 19a.

Lan eta Justiziako sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

2017ko urriaren 13a, ostirala



I.Eranskina - Eskabidea
**KARRERA JUDIZIALEAN ETA FISKALEAN, ETA JUSTIZIA
 ADMINISTRAZIOAREN LETRADUEN KIDEGOAN SARRERA PRESTATZEKO
 LAGUNTZAK**

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *
 Titularra Ordezkaria
Datu pertsonalak

Titularra	
Izena *	Telefonoa
_____	□□□□□□□□□□
Lehen abizena * Bigarren abizena *	Sexua * <input type="radio"/> Gizona
_____ _____	<input type="radio"/> Emakumea
Identifikazio-dokumentua * Zenbakia * □□□□□□□□ - □	
Ordezkaria	
Izena / Erakundearen izena	Telefonoa
_____	□□□□□□□□□□
Lehen abizena Bigarren abizena	Sexua <input type="radio"/> Gizona
_____ _____	<input type="radio"/> Emakumea
Identifikazio-dokumentua Zenbakia □□□□□□□□ - □	

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

<input type="radio"/> Posta bidezkoa
Helbidea * _____ Zk. _____ Sol. _____ Letra _____
PK * □□□□□□□□ Udalerria * _____ Probintzia * _____
Herraldea * ESPAINIA _____
<input type="radio"/> Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *

<input type="radio"/> Euskara <input type="radio"/> Gaztelania
--

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak**Bateraezintasun-adierazpena**

Aitortzen dut:

- Ez dut hiru urteko gehieneko epean –jarraian edo aldika– deialdi honetan aipatzen diren oposizioak prestatzeko inongo bekarik, antzeko graduondoko ikasketarik edo laguntzarik jaso.

Adierazpen bereziak

Aitortzen dut:

- Prestatu nahi dudana oposizioaren azken deialdiko baldintzak betetzen ditut. Era berean, ez dut bestelako bekarik edo gai honi dagokion antzeko graduondoko ikasketarik, eta ez dut lan ordaindurik egiten, salbu eta, hala bada, badagokio, deialdi honetako Aginduaren 14. artikulua 1. puntuan aurreikusitako salbuespenaren barrukoa ez bada.
- Badut: Karrera Judizialeko
 Karrera Fiskaleko
 Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegoko

_____ prestazailearen zuzendaritza, eta

_____ oposizioan parte-hartzeko asmoa dut.

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut:

- Ez dudala laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Ez daukadala diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzea eragozten didan zigor penal edo administratiborik.
- Ez dudala diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten didan lege-debekurik, beren-beregi sexu-diskriminaziotatik¹ lege-debekurik.
- Beteak ditudala indarrean dauden arauak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak.
- Ez nagoela Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legean, azaroaren 17koan, 13.2 artikuluan ezarritako ezin debekuren pean.
- Betetzen ditudala laguntza hauek jasotzeko indarreko legediak ezarritako baldintzak.
- Benetakoak direla eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

Laguntzak edo diru-laguntzak itzultzeko prozeduraren baten pean al zaude?

- Ez nago laguntzak edo diru-laguntzak itzultzeko inongo prozeduraren pean.
- Laguntzak edo diru-laguntzak itzultzeko prozedura baten pean nago (holako prozedura baten pean egoteak baldintzatu egiten du laguntza ematea eta, hala bada, badagokio, ordaintzea, baina ez du parte hartzea eragozten).

¹ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

2017ko urriaren 13a, ostirala

Baimenak

- Baimena ematen diot deialdi hau kudeatzen duen organoari honako datu hauek kontsultatu, eskatu edo egiaztatu ditzan horretarako eskumena duen administrazioan:
- Nortasunari buruzko datuak (NAN).
 - Euskararen ezagutzari buruzko datuak, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) kontsulta eginda.
 - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen datuak (EAEko Foru-aldundiak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentzia).
 - Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia (GSDN)).
- Ez diot baimenik ematen prozedura hau kudeatzen duen organoari ofizioz datuak egiaztatzeko (baimenik ez emateak dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharra dakar ezinbestean).

Aurretik entregatutako dokumentuak

Dokumentu hauek kontsultatzeko baimena ematen dut:

Dokumentuaren izena	Noiz entregatu zen	Zein erakundetan entregatu zen

Datu pertsonalen babesa² (DPBL)

Eskabidean agertzen diren datuak ezaugarri hauek dituen fitxategi batean sartu dira:

- Izena: Becas.
- Non arautua: AGINDUA, 2017ko uztailaren 13koa (uztailaren 31ko EHAA).
- Titularra: Eusko Jaurlaritzaren Justizia Administrazioako Zuzendaritza.
- Helburua: laguntza emateko espedienteak kudeatzea.

Fitxategiaren berri eman zaio aldez aurretik Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita dauzka. Datu horiek ez zaizkio beste inori emango, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

DPBLak aitortzen duen bezala, sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko, jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazio zuzendaritzarekin:

Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Laguntzak behar bezala esleitzeko, Administrazio publikoak adierazi diren datuak erkatu ahal izango ditu eta berariazko egiaztapenak egin.

_____ (e)n _____ (e)an
(Tokia) (Data)

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

² Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak –DPBL- xedatutakoa betez.

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Zure izenean ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Titularra*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu *titularri* dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona baten ordezkari gisa ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu ordezkatzeko duzun pertsonaren datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: [Nire kudeaketak](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektronikoa](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatutzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.